PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 02 - JASANGARRITASUN DEPARTAMENTUA
Atala: 0210 - Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 140 - Klima aldaketa
Funtzionala: 172 - Ingurumenaren babesa eta hobekuntza

Programa mota:

Finalista

Misioa:

GFAren eskumenetatik abiatuta, garapen hipokarbonikorako trantsizioa eta klima-aldaketaren mehatxua murrizten laguntzea, 2050erako Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia betez (aurrerantzean Gipuzkoa Klima 2050). Emisioen arintzera bideratutako xedeak indartzeaz gain, ahaleginak areagotuko dira Gipuzkoako eremu ezberdinak (naturalak, sozio-ekonomikoak, etab.) klima-aldaketaren arrisku eta inpaktuetara egokitzearekin lotura handiena duten helburuetako ekintza bete-betean garatzeko.

Egoeraren diagnostikoa:

Klima-aldaketa da XXI. mendeko ingurumen-erronka nagusia, hainbat foro eta erakundetan behin eta berriz adierazi den bezala, adibidez, Nazio Batuetan.

Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Adituen Taldeak (IPCC, ingelesezko sigletan) berriki adierazi duen bezala, zalantzarik gabe, giza jarduerak atmosfera, ozeanoa eta lurra berotzea eragin du. Era berean, adierazten du berotegi efektuko gasen (BEG) kontzentrazioan hautemandako hazkundea, zalantzarik gabe, giza jarduerek eragin dutela, eta gizateriaren historiako mailarik altuenetan daudela.

Era berean, IPCCren III. Lantaldearen txostenean (Klima-aldaketa 2022: klima-aldaketa arintzea) jasotzen denez, sektore guztietan emisioen murrizketa handiak berehala lortzen ez badira, berotze globala 1,5 ° C-ra mugatzea ezinezkoa izango da. Copernicus-eko (C3S) Klima Aldaketaren Zerbitzuaren arabera (Europar Batasuneko Lurra behatzeko programa), 2024. urtea maila globalean dokumentatutako urterik beroena izan zen erregistroak daudenetik, eta batez besteko tenperatura 1,5 ºC-tik gorakoa izan den lehen urtea. Gainera, IPCCk ohartarazi duenez, egungo arintze-planek 2,8 graduko igoera ekarri dute mende amaierarako, eta horrek inpaktu handiagoak eragingo ditu. Horregatik tenperatura igoera 1,5ºC-ra eta 2ºC mugatzeko aztertutako agertokiek adierazten dute, berotegi-efektuko gasen emisioak, maila globalean, puntu maximoa 2025urtean izan behar dutela eta 2030erako nabarmen gutxitzea lortu behar direla.

Nahiz eta emisioak murrizteko nazioarteko eta Europako konpromisoen esparruan erkidegoek ez duten juridikoki helburu loteslerik, Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legeak helburu gisa ezartzen du 2030ean emisioak % 45 murriztea 2005. urtearekiko, eta neutraltasun klimatikoa beranduenez 2050ean lortzea, 2045ean lortzeko beharrezko ahaleginak eginez.

Eskuragarri dagoen Gipuzkoako berotegi-efektuko gasen 2022ko azken inbentarioaren arabera (Iturria: IHOBE, 2024), emisioen-maila oinarri-urtearekin alderatuta % -36 jaitsi den arren ezarritako helburuak lortzeko sektore guztien arintze-ekintzak bizkortu behar dira.

Beharraren deskribapen xehatua:

Estrategiak ezarritako berotegi-efektuko gas emisioen murrizketa-maldari jarraitzea lortzen ari den arren Gipuzkoa, araudi autonomiko berriarekin, zeinak 2030erako murrizketa-helburuak areagotzen dituen, are gehiago areagotu behar da lurraldeko emisioen murrizketa, bereziki trantsizio energetikoarekin (1. Xedea. Karbono gutxiko energia eredu baten alde egitea.) eta mugikortasunarekin eta garraioarekin (2. Xedea. Isurpenik gabeko garraio baterantz aurrera egitea) lotutako ekintzak.

Aldi berean, modu integral eta integratuan ekin behar zaie lurraldeko eremu kalteberetan erresilientzia handiagoa lortzeko beharrezkoak diren egokitzapen-neurriei. Arlo honetan, lantzen ari garen 2025-2030 aldirako lurraldearen egokitzapenerako lan programak Gipuzkoa Klima estrategiak jasotakoa areagotuko du.

Klima-aldaketaren aurkako borroka lehen mailako erronka politikoa, instituzionala eta soziala da. Funtsezkoa izango da erakunde barruko eta erakunde arteko oztopoak gaindituko dituzten akordioak

eta aliantzak lortzea, bai eta ekoizpen-sektore guztiak eta Gipuzkoako gizarte osoa konpromisoan inplikatzea ere.

Nori zuzendua:

GFA bera, beste erakunde publiko batzuk, enpresak, elkarteak eta herritarrak oro har.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Bitarteko ekonomiko eta giza baliabide propioak Kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Azterlanak, txostenak eta planak. Inplikatutako foru- eta udal-politiken jarraipena eta bultzada. Monitorizazioa, bisoreak. Argitalpenak. Lankidetza-hitzarmenak eta dirulaguntzak. Bekak. Kanpainak eta ekitaldiak. Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko proiektuak, obrak eta bestelako jarduerak. Gipuzkoako Klima Aldaketaren Fundazioari egindako ekarpena. Naturklima eraikina mantentzea.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Emisioak murriztea eta klima-aldaketara egokitzea. Klima-aldaketaren jarraipena eta ondorioak. Lurraldeko politiken lerrokatzea (foralak, udalekoak, pribatuak eta gizarte-ekintza). Behatzeko, koordinatzeko eta errazteko tresnak

Programaren arau esparrua:

Lurralde historikoen legea. Toki-erregimenaren Oinarrien Legea. Administrazio-legeri orokorra. Kontratazio araudia. 10/2021 Legea, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legea. 7/2021 legea, klima aldaketa eta trantsizio energetikoari buruzkoa. Klima Aldaketari Egokitzeko Plan Nazionala 2021-2030. 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima AldaketarenaEAEko 2050erako Klima Aldaketaren Estrategia. Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050. Eragindako politika sektorialen legeria eta plangintza. Europako araudia.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Ekonomia jasangarria, berdea, deskarbonizatua eta bidezkoa bultzatzea, lurralde estrategia garatuz, 2050. urterako klima neutraltasuna bermatuko duena.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Ekoizpen-sektoreen energia-intentsitatea	Kopurua	<=	59,16	59,00	59,00	0,00
Programan parte hartzen duten enpresen kopurua	Kopurua	>=	71,00	39,00	50,00	0,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.

7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA % 2,78

9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA % 60,81

13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA % 36,40

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**807.879,86**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Enpresa-sareko langileei trantsizio energetikoaren arloko prestakuntza eta espezializazioa ematea	44.984,30			2027/01/01	2027/12/31	
1.2 Ekintza Deskarbonizazio-prozesuetan lantaldeei laguntzeko zerbitzuak garatzea, sektoreka eta/edo lantokika.	58.352,90			2027/01/01	2027/12/31	
1.3 Ekintza Enpresa-sarearen deskarbonizazioa laguntzeko dirulaguntza lerroa	493.868,60			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza Gipuzkoako produkzio-sektoreen ezaugarrietan eta deskarbonizazioaren arloan dituzten beharretan sakontzea	59.221,16			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza Deskarbonizazioa bideratzeko tresnak enpresa-ehunaren esku jartzea (autodiagnostikorako tresnak, deskarbonizazio-plan sektorialak, etab.)	94.292,32			2027/01/01	2027/12/31	
1.6 Ekintza Jasangarritasuna enpresetan bultzatzea	57.160,58			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Klima aldaketari aurre egiteko trantsizioak bultzatzea lurraldearen karbono aztarna gutxituz, karbonoa xurgatzeko ahalmena handituz, birziklapena indartuz, energia iturrien erabileran aldaketak sustatuz eta energia berriztagarriak bultzatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Birziklatze tasa (%)	Ehunekoa	>=	52,52	52,52	60,00	60,00
Energia komunitateen kopurua	Kopurua	>=	67,00	67,00	94,00	94,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Birziklapenean, berrerabileran eta hondakinen kudeaketa jasangarrian aurrera egitea.



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**154.773,72**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Trakzio proiektua: HUB / Ekonomia zirkularra bateriak	154.773,72			2027/01/01	2027/12/31	

2. Ekintza lerroa:

Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.

13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA % 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**1.288.808,02**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
2.1 Ekintza Informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak eta -kanpainak	34.034,30			2027/01/01	2027/12/31	
2.2 Ekintza Trakzio proiektua: Herritarrak / Klimaren aldeko herritarren batzarrak	1.254.773,72			2027/01/01	2027/12/31	

3. Ekintza lerroa:

Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeko eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.

13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA % 63,76 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA % 34,72

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**1.644.830,97**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
3.1 Ekintza Klima aldaketara egokitzeko ekintza batzuk bultzatzea	101.413,48			2027/01/01	2027/12/31	
3.2 Ekintza Naturklima fundazioari egindako ekarpenak	1.130.160,58			2027/01/01	2027/12/31	
3.3 Ekintza Naturklima egoitza mantentzea eta hobetzea	322.693,43			2027/01/01	2027/12/31	
3.4 Ekintza 2050erako Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Estrategiaren (Gipuzkoa	59.402,90			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Klima 2050) garapena eta jarraipena.						
3.5 Ekintza Klima-aldaketari buruzko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetarako bekak	31.160,58			2027/01/01	2027/12/31	

Urteko helburua: Foru Aldundiaren jarduera izatea euskaratik eta euskaraz

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du (%)	Ehunekoa	>=	0,00	0,00	80,00	80,00
Euskarazko administrazio-atalak	Kopurua	>=	0,00	0,00	50,00	50,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Plana (2023-2027) gauzatu



% 100,00

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**1.193,43**			**2027/01/01**	**2027/12/31**	
1.1 Ekintza Kontratuak egiterakoan hizkuntza berdintasuna lortzeko klausulen gida aplikatzea, kontratazio publikoa modu elektronikoan kudeatzeko aplikazio berriaren baitan.	1.193,43			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Beharraren deskribapen xehatua:

140. programak klima-aldaketaren aurkako borroka du helburu, Gipuzkoa Klima 2050 estrategia gauzatuz. Estrategia horrek genero eraginaren ebaluazioa izan zuen, eta ebaluazio horretan hura osatzen duten 99 ekintzak aztertu ziren, neurriak sartzearen egokitasuna zehazteko, xedapen orokorretan genero eragina ebaluatzeko txostenak egiteko jarraibideak aplikatuz. Azterketa horren ondorioz, estrategiak genero berdintasuna sustatzeko neurriak ditu 41 ekintzatan. Ondorioz, estrategian jasotako ekintzen hedapenean kontuan hartuko dira neurri horiek.

Kuantifikazioa:	0,00	(% 0,00)
Ordainketa kredituak:	0,00	(% 0,00)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNEKO PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Programa honen ekintzak zuzenduko dira, alde batetik klima aldaketa arintzera eta haren ondorioetara egokitzera eta bestetik, kontzientziaziotarako tresnak eta kanpainak egitera. Beraz, zerbitzu hizkuntza atala landuko da bereziki. Bestalde, enpresen kontratazioetan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haiek betetzen diren jarraipena egingo da.

Kategoria	Nola
6.- Hizkuntza-klausulak	**6.- Hizkuntza-klausulak**
8.- Herritarrekiko harremanak	**Gauzatuko diren komunikazioetan bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da**

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

140 Programak zuzeneko ekarpena egiten dio 13. GJHari (KLIMAREN ALDEKO EKINTZA), nahiz eta bere ekintzek beste GJH batzuen xede asko lortzen laguntzen duten.

Kuantifikazioa: 3.872.486,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA	7-Energia irisgarria eta ez kutsagarria Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.	**22.492,15**	
Helburua	7.3 - 2030. urterako, Gipuzkoako efizientzia energetikoa bikoiztea.	22.492,15	
	Ekintza lerroak		
	Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.	22.492,15	
9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA	9-Industria berrikuntza eta azpiegiturak Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.	**491.307,25**	
Helburua	9.4 - 2030. urterako, azpiegiturak modernizatzea eta industriak eraldatzea, jasangarriak izan daitezen. Horretarako, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabili behar dira eta teknologia- eta industria-prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da, eta herrialde guztiek dagozkien ahalmenen araberako neurriak har ditzatela lortu behar da	491.307,25	
	Ekintza lerroak		
	Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.	491.307,25	
12 EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK	12-Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea.	**154.773,72**	
Helburua	12.4 - 2020. urterako, produktu kimikoak eta hondakin guztiak ekologikoki arrazoizkoa den moduren batean kudeatzea beren bizi-zikloan, hitzartutako nazioarteko esparruekin bat etorriz; eta nabarmen murriztea atmosferara, urera eta lurrera egiten dituzten isuriak, horiek giza osasunean eta ingurumenean dituzten eragin kaltegarriak arintze aldera	154.773,72	
	Ekintza lerroak		
	Birziklapenean, berrerabileran eta hondakinen kudeaketa jasangarrian aurrera egitea.	154.773,72	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	13-Klimaren aldeko ekintzak Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko (Aintzat hartuta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena klima aldaketari mundu mailan erantzuteko gobernuen arteko eta nazioarteko foroa nagusia dela).	**2.631.577,85**	
Helburua	13.1 - Klimarekin eta hondamendi naturalekin lotutako arriskuekiko erresilientzia eta horietara egokitzeko ahalmena sendotzea herrialde guztietan	50.706,74	
	Ekintza lerroak		
	Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeko eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.	50.706,74	
Helburua	13.2 - Klima-aldaketarekin lotutako neurriak sartzea politika, estrategia eta plan nazionaletan	294.080,46	
	Ekintza lerroak		
	Lurraldeko sektoreen eraldaketa teknologikoa eta energetikoa bultzatzea, deskarbonizazio eta eraginkortasun energetikoko politiken eta planen bidez.	294.080,46	
Helburua	13.3 - Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza eta erakunde-gaitasuna hobetzea klima aldaketa arintzeko, hartara egokitzeko, ondorioak murrizteko eta alerta goiztiarra izateko.	2.286.790,65	
	Ekintza lerroak		
	Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeko eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.	997.982,63	
	Gizartearekin komunikazioa indartzea, sentsibilizazioan sakontzea eta ingurumen-boluntariotza sustatzea.	1.288.808,02	
	17-Helburuak lortzeko aliantza Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	**571.141,60**	
Helburua	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	571.141,60	
	Ekintza lerroak		
	Klima Aldaketaren Behatokiaren lana sustatzea klima aldaketak gure lurraldean duen eragina aztertzeko eta aurreikusteko eta estrategia eta ekintza koordinatu eta bateratuak garatzeko.	571.141,60	
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna Kultura eta hizkuntza aniztasuna	**1.193,43**	
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	1.193,43	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Ekintza lerroak		
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Plana (2023-2027) gauzatu	1.193,43	
Guztira	**3.872.486,00**	

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	153.833,00	238.686,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	505.600,00	441.800,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.909.859,00	3.007.000,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**2.569.292,00**	**3.687.486,00**					
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	150.000,00	150.000,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	75.000,00	60.000,00					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**225.000,00**	**210.000,00**					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**2.794.292,00**	**3.897.486,00**					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	238.686,00				238.686,00	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	441.800,00				441.800,00	
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	3.007.000,00				3.007.000,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**3.687.486,00**				**3.687.486,00**	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	150.000,00				150.000,00	
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	60.000,00				60.000,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**210.000,00**				**210.000,00**	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	**3.897.486,00**				**3.897.486,00**	